

ARTEAN MURGILTZEN

- **Jakintza adarra:** Arteak eta Giza Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Arte Ederren Fakultatea
- **Gradua/k:**
Artea
- **Garapen-lekua (helbidea):** Arte Ederren Fakultatea. Sarriena auzoa z/g, Leioa

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Artearen metodologiari ekitetik helduko diogu, pintura, marrazkigintza eta argazkigintzaren material eta prozedurak zuzenean erabiliz.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Argazkigintza eta argiztapena.
- Kolorea eta prozedura piktorikoak.
- Marrazkigintza eta prozedura grafikoak.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

A. Argazkigintza tailerra (60 minutu):

Hiru puntuko oinarritzko argiztapen-eskemari eta Rembrandten triangelu izeneko bi puntuko argiztapen-eskemari buruzko ikaskuntza. Ikasleek erretratuko argazkiak aterako dituzte Reflex kamerekin (Arte eta Teknologia 1en maileguan harturikoak), hainbat foku erabiliz, oinarritzko argiztapena egiten ikasteko.

Azalpenerako materiala:

Eskala txikiagoan erabiltzen diren argiak nola kokatzen diren azaltzeko miniaturazko set-a.

B. Pintura tailerra (60 minutu):

1. Pintura akrilikoa fabrikatuko dugu, pigmentuak eta aglutinatzailearekin nahasketa ezberdinak egiten. Sortutako koloreak paletan antolatuko ditugu (20 min).

2. Zuzeneko pintura eredu ezberdinen bitartez landuko dugu. Pinturen dimentsio ezberdinetara hurbilduko gara: hondo-figuraren erlazioa, tonua eta saturazioa (40 min).

C. Marrazkigintza tailerra (60 minutu):

Ikasgelan ditugun buru hezurak motibo gisa hartuta, eta klaseko fokuaz argiztatuta, naturaletik helduko diegu planoaren egituraren parte hartzen duten elementuei: konposaketa, argiluna eta perspektiba.

Zuzentasuna baino, eskua soltatu eta material eta prozedurekin esperimentatzea izango da helburua, ordu bete horretan bizpahiru marrazki bukatzeko (prozedura hezeaz bat, lehorraz bestea, gutxienez).

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-20	Euskara	Goizez	09:00-13:00	20
2026-01-20	Gaztelania	Goizez	09:00-13:00	20

*Talde bien harrera Arte Ederren fakultateko eraikin nagusian izango da, osterara euskara eta gaztelaniakoa banatu eta bakoitzak ordena ezberdinean tailerrak egiteko, espazio ezberdinetan.